

**ADIERAZPENA**  
**EUSKALKIEN ERABILERAZ**  
**Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan**

*Bilbo, 2004ko apirilaren 1a*

*Andres Urrutia,  
**Jagon** sailburua*

*Paskual Rekalde,  
Euskalkien lantaldearen arduraduna*

Euskaltzaindiak berriki onartu du euskalkiak irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan nola erabili behar diren argitzeko *Adierazpena*. Testua bere osoan irakurri baino lehenago komenigarria iruditu zaigu azalpen labur eta zehatz batzuk eskaintzea.

Badakizueenez, Euskaltzaindian aspalditik dugu esku artean euskara batuaren eta euskalkien gaia aztertu nahia.

Euskaltzaindiak 2001eko irailean XV. Biltzarra antolatu zuen Bilboko Euskalduna jauregian. Hartan mahai-inguru bat egin zen euskara batuaren eta lekuko euskararen gainean. Ezin ukatu arrakastatsua izan zela oso; hara hurbildutakoek egindako eskariari erantzunez, euskalkien erabilerari buruzko adierazpena moldatzeko agindua bere gain hartu zuen *Jagon* saileko Euskalkien lantaldeak.

Abiapuntu genuen, bistan da, marko edo esparru orokor bat finkatzea, euskara batua eta euskalkiak zer, non eta nola kokatu behar diren jakiteko. Bestalde, behar-beharrezkoa genuen arloz arlo jokatzeko, behinola Euskaltzaindiak emandako jarraibideak gaurkotzeko asmoz. Hartara, gogoeta orokor baten bidez, hiru arlo nagusi aukeratu genituen jorragai, euskararen ofizialtasunak ekarri duen egoera berria egoki eta zuzen azaltzearen: administrazioa, komunikabideak eta irakaskuntza. Uste dugu, hiru arlo horietan batzen eta laburbiltzen direla gaur egungo gizartearen nondik norakorik esanguratsuenak.

Horiek horrela, testuari ekin baino lehenago, gure lantaldearen bidea zehaztu eta markatu genuen. Batetik, aurrekariak azpimarratu beharra zegoen, gure abiapuntua artez zein zen jakiteko. Bestetik, ezinbestekoa zitzaigun

zioen azalpen moduko bat egitea, halakoak eta bestelakoak gogorarazteko eta jendaurrean aldarrikatzeko.

*Adierazpen* honetara iritsi baino lehenago, bidea luzea izan da, baita metodologian egindako lana ere. Nolanahi ere, gure xede nagusia adostasuna izan da. Hortaz, lantaldeko kideek, nork bere izenean edo ordezkari moduan, hainbat erakunderen ahotsa ekarri dute gurera (Hego zein Ipar Euskal Herriko jendeak hartu du parte lantaldean).

Ez ditugu aipatu gabe utzi nahi lan honetan aritu diren Euskalkien lantaldeko kideak, besteak beste, Joxe Ramon Zubimendi, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Jon Aurre, Manu Ormazabal, Kaxildo Alkorta, Alazne Petuya, Maialen Hiribarren, Iraide Iturri eta ni neu ere, Paskual Rekalde. Ezin atzendu, jakina, gure gidari eta aholku-emaile izan den Andres Urrutia, euskaltzaina eta *Jagon* sailburua.

Lantaldearen barnean, esandakoari jarraikiz, azpitaldeak eratu dira, baikoitzak, bere esperientziaren bidez, arlo zehatzeko ekarpenak egiteko.

Barneko lanaz gainera, halako testu batek beti du premiazkoen gizarteko eragile eta adituen iritzia hartzea. Horrexegatik, hain zuzen ere, lantaldearen lana amaitu eta lantaldetik kanpoko adituei eta eragileei dei egin zitzaie, beren iritzia emateko eta testuaren barnean txertatzeko. Halaxe egin zen 2003ko azaroaren 21eko jardunaldi itxian.

Iritzi-trukaketak bizi-biziak izan zirela ezin uka. Bistan dago esku arteko gai honek bere korapiloa baduela, eta bateko eta besteko usteak eta aburuak, maiz aski, kontrajarriak eta uztartu ezinak direla.

Izatez, testu hau adostasunaren emaitza eta fruitua da eta, jakina, erdibide batera garamatza, batzuen eta besteen gogoak eta nahiak oso-osorik betetzen ez baditu ere. Horretan ere, berez duen balioa aitortu, eta gure erruz dituen mugak eta ezinak gogoratu behar.

Testua (*Adierazpena*) irakurri eta azaldu aurretik, komenigarria deritzogu bi ohar egiteari:

- a) Testu honek ez ditu bere baitan biltzen gramatikari, morfo-joskerari edo bestelako hizkuntza ezaugarriei buruzko aipamenak, arauak edo gomendioak. Hala nahita egin da hori, horrek etorkizuneko garapena eskatzen baitu, noizbait, Euskaltzaindiak, puntuz puntu, tentuz eta zuhurtasunez egin beharko duena. Horretarako asmoa, behintzat, badago.
- b) Esku artean duzuen testua Euskaltzaindiak, martxoaren 26an, berretsi zuen Lezamako Udaletxean egindako osoko bilkuran.
- c) *Adierazpena*: ikus Euskaltzaindiaren 137.ARAUA (*Euskera* honetako 426-429.orr.).